



**Arartekoaren 2022R-1108-22 Ebazpena, 2022ko uztailaren 27koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari gomendatzen zaio berrikerik dezala Bizkaiko Etxebizitzako lurralde ordezkariaren ebazpen bat, zeinak etxebizitzarako prestazio ekonomikoa azkendu dela eta behar ez bezala jasotako zenbatekoak itzuli behar direla deklaritzen duen.**

### Aurrekariak

1. Arartekoak izapidetzeko onartu zuen herritar baten kexa bat. Kexa horren bidez herritarrak adierazi zuen ez zegoela ados etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa aitortzearekin batera prestazio osagarria azkendu izanarekin, ez eta behar ez bezala jasotako prestazio ekonomikoen kontzeptupean 6.000 € itzultzeko eskatzeko Etxebizitzako Bizkaiko lurralde ordezkariak hartutako erabakiarekin ere.

Zehazki, kexagileak erakunde honetan azaldu zuen behar bezala bete zituela Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak egindako askotariko errekerimenduak, eta beharrezko denboran eta forman justifikatu zuela 2019ko uztailaren 18an aitortutako prestazioaren erabilpena.

2. Horrekin guztiarekin, 2021eko uztailaren 19an Bizkaiko Etxebizitzako lurralde ordezkariak ebatzi zuen azkentzea etxebizitzarako eskubide subjektiboa eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoa (aurrerantzean, EPE). Aipaturiko erabakian adierazitako arrazoia aurrekarien atalean jaso zen, honela:

*- "...se constató que (xxx y zzz) no estaban inscritos en el registro oficial con una antigüedad de cuatro o más años como demandantes de alquiler."*

Hartutako erabakiarekin gertatutakoa ulertzen ez zuenez, kexagileak azaldu zuen ez zuela errekurtsorik jarri Etxebizitzako sailburuordearen aurrean, uste zuelako Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak egindako akats bat zela.

Hala ere, Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak izapidetzearekin jarraitu zuen eta 6.000 euro itzultzeko betebeharra deklaratu zuen. Hau da, 2019ko ekainean aitortu zenetik 2021eko maiatzean azkentzeko prozedura hasi zenera arte ordaindutako prestazio guztia. Horretarako, ofizioz hilabeteko 100 euroko kuota ezarri zen 60 hilabetez jarraian ordaintzeko.

3. Azaldutako egitateak ikusita, Arartekoak laguntza eskaera igorri zion Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari.

Bere idazkian Arartekoak informazioa eskatu zuen jakiteko zergatik Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak aitortu zituen eskubide subjektiboa eta EPE,





nahiz eta kexagileak eskaria formalizatu zenetik ez zuen betetzen antzinakotasunaren betekizuna.

Era berean, Arartekoak sailari eskatu zion informazioa bidaltzeko interesdunek betekizunak betetzen dituztela berrikusteko, eta emakidarako erabilitako kontrol sistemei buruzkoa baita ere.

Horrez gain, Arartekoak jakin nahi zuen zeintzuk izan ziren Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzaren arrazoiak eskubide subjektiboa eta EPE aitortzeko, izan ere, eskaria formalizatu zenean jakin zuen kexagileak eta bere bizikidetzaren unitateak ez zutela betetzen alokairu erregimeneko etxebizitza babestuaren eskatzaileek bete beharreko antzinakotasunaren irizpidea.

Edonola ere, Arartekoak esan zuen kezkatuta zegoela egiaztatu zuelako bi urte igaro zirela Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak azkenean berrikusi zuenera arte kexagileak betekizunak betetzen zituen edo ez, eta azkentzea ebatzi zuenera arte.

Azkenik, Arartekoak alde aurretiko gogoeta batzuk helarazi zizkion; horiek geroago azalduko ditugu, errepikakorrak ez izateko.

4. Lankidetzaren eskaerari erantzunez, Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzako administrazio eta zerbitzuen arduradunak egindako txosten bat sartu zen erakunde honen erregistroan. Txosten horretan azalduko gertakariak berretsi zituen eta Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzaren erabakia berretsi zuen, bai kexagilearen EPEa azkentzeari dagokionez, bai eta behar ez bezala jasotako prestazioengatik 6.000 € itzultzeko deklarazioari dagokionez ere.

Etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboaren hasierako aitopenerari eta inskripzioaren antzinakotasuna egiaztatzeari dagokienez, Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak hauxe jakinarazi dio Arartekoari:

- *“La Resolución de reconocimiento del derecho subjetivo se dictó sobre la base de un error de tramitación.*

(...)

*Se trató de un error de tramitación de una persona que llevaba menos de 1 mes desarrollando este trabajo.”*

Edonola ere, bidalitako erantzunean ez da aipatzen egungo kexagilearen eta bere kargura dauden lau adingabeekin osatzen duen elkarbizitza unitatearen egoera ekonomikoa zein den. Arartekoak ez du egiaztatu ezta ere Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak kexagileak halabeharrez itzuli beharreko hilabeteko 100 euroko kuota murrizketa baloratu duenik.





5. Hortaz, egitate eta zuzenbide oinarri nahikoak daudela uste denez, honako gogoeta hauek egin dira:

### Gogoetak

1. Duela hamarkada batzuetatik, bai 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (25.1 artikulua), bai 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (11.1 artikulua), bai Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak (34.3 artikulua), bai eta Europako Gutun Sozialak berak (31. artikulua ) ere, etxebizitzak alderdi soziala duela azpimarratu izan dute, pertsonen eta beren familien bizi-baldintzak hobetzen dituelako.
2. Azaroaren 27ko 25/2014 Legeak, Nazioarteko Itunei eta bestelako Akordioei buruzkoak, bere 29. artikuluan jasotzen du Estatuko botere publiko, organo eta erakunde guztien betebeharrak dela Espainia alderdi duten indarrean dauden nazioarteko itunetako betebeharrak errespetatzea eta itun horiek behar bezala betetzen direla ziurtatzea. Horri buruz, Konstituzio Auzitegiak adierazi du artikulua hori honi dagokiola: *“tanto al Estado (esta vez en el sentido estricto) como a las comunidades autónomas,”* quienes *“cada uno en el ámbito de sus respectivas competencias, deben «respetar las obligaciones» asumidas por España en los tratados internacionales y «velar» por su adecuado cumplimiento”<sup>1</sup>.*

Itun batek barne-araudia hartzeko beharra eskatzen duenean, aipaturiko 25/2014 Legearen 30.3 artikulua ezartzen du, era berean, autonomia-erkidegoek beharrezko neurriak hartu behar dituztela Espainia alderdi duten itunak betearazteko. Hau da, nazioarteko itun batek ezartzen dituen betebeharrak betetzeko botere publikoen legeria edo aplikazio-egintzak behar direnean, autonomia-erkidegoek nahitaez hartu behar dituztela beren eskumenen esparruan.

Honela, bizi-maila egokia edukitzeko eskubidearen eta bereizkeria ez jasateko eskubidearen elementu integratzaile gisa etxebizitza egoki bat izateari buruzko errelatore berezi ohiak gogorarazi zuen nazioarteko giza eskubideei dagozkien arauak bete behar dituztela<sup>2</sup> oinarrizko zerbitzuen prestazioak edo arautzeak, alokairurako diru-laguntzek eta etxebizitza-arloko programei eta politikei dagokien etxebizitza egoki bat izateari buruzko beste edozein erabakik..

---

<sup>1</sup> **Konstituzio Auzitegia.** Ekainaren 20ko 87/2019 Epaia. Zazpigarren oinarri juridikoa. [\[ECLI:ES:2019.87\]](#).

<sup>2</sup> **Nazio Batuen Erakundea. Batzar Nagusia.** Nazio Batuen errelatore bereziaren txostena, etxebizitzari buruzkoa, bizi-maila egokia edukitzeko eskubidearen eta bereizkeria ez jasateko eskubidearen elementu integratzaile gisa (Leilani Farha), 10. parag. Eskuragarri hemen: <https://undocs.org/es/A/HRC/28/62>



3. Bestalde, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak behin eta berriz agerian utzi du herri-agintariek premiaz jardun behar dutela dagozkien eskumen-eremuetan, ohiko etxebizitza izateari eta erabiltzeari loturiko oinarrizko eskubideak bermatzeko .<sup>3</sup>
4. Barruko ikuspegitik begiratuta, Espainiako Konstituzioaren 47. artikuluan aitortzen da etxebizitza arloan eskumena duten botere publiko guztien jardueran oinarritzat hartu behar den agindua edo gidalerroa. Hain zuzen ere, Konstituzio-enkargu horrek behartzen ditu administrazio publikoak, maila desberdinetan, etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea gauzatzeko beharrezko baldintzak sustatzera eta arau egokiak ezartzera, bereziki lurzoruaren erabilera interes orokorraren arabera arautuz, espekulazioa eragozteko.

Laburbilduz, Konstituzio-arau horrek bermatzen du bizilekua behar duten herritarren posizio juridikoa.

Dena den, Espainiako Konstituzioaren 148.1.3 artikuluan eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.31 artikuluan ezarritako eskumen-banaketa kontuan hartuta, etxebizitza arloko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoak dauka (EAE), ez beste inork).

5. Testuinguru horretan, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen (aurrerantzean, EL) 7. artikulua etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea eta etxebizitza edo bizitoki bat legez okupatzeko eskubidea aitortzen die administrazio-azotasuna Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) edozein udalerritan duten pertsona guztiei.

Eskubide hori betetzeko moduei dagokienez, ELaren 9. artikulua lehentasunez aurreikusten du etxebizitza edo zuzkidura-bizitoki bat alokairu-erregimenean jartzea.

Etxebizitzarik edo bizitokirik ez dagoenean soilik, eta modu subsidiarioan, prestazio ekonomikoen sistema bat ezarri gauzatu ahal izango da etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa betetzea.

6. Gaur egun etxebizitza duina eta egokia izateko eskubide subjektiboa eta EPE izeneko aitortzeko baldintzak ELaren laugarren xedapen iragankorrean jasotzen dira labur-labur.

Laburbilduz, bi dira EPE aitortzeko eskatzen diren funtsezko betekizunak. Alde batetik, alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuen eskatzaile gisa gutxienez lau urteko antzinatasuna behar bezala egiaztatzea. Bestetik, bizikidetzaren unitatearen berezko osaeraren arabera zenbateko jakin bat gainditzen ez duten diru-sarrera haztatuak justifikatzea.

---

<sup>3</sup> **Europar Batasuneko Justizia Auzitegia.** Besteak beste, 2013ko martxoaren 14ko epaia (C-415/11) eta 2016ko abenduaren 21eko epaia (Sala Nagusia; gai metatuak: C-154/2015, C-307/2015 eta C-308/2015).



Nolanahi ere, legegile autonomikoaren borondatea izan zen aipaturiko eskubide hori eta prestazio subsidiarioa erregelamendu bidez garatzea, eskubidea aitortzeko sistema beharrezko segurtasun juridikoaz hornitzeko.

Gai zehatz horri dagokionez, Arartekoak gogorarazi nahi du Eusko Legebiltzarrak, Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren erregistroan onartzeko irizpideak aldatzeko neurriei buruzko 12/2017 Legez besteko Proposamenean<sup>4</sup>, Eusko Jaurlaritzari hau eskatu ziola:

- *"...bederatzi hileko epean garatu dezala Etxebizitzaren 3/2015 Legeak jasotzen duen etxebizitza- eskubide subjektiborako irispidea arautzeko dekretua. Hori egin dezala kolektiboei, gizarte-eragileei eta herritarrei oro har irekita egongo den herritarren parte-hartzerako prozesu baten markoan, eta ahal beste sentsibilitate eta kasuistika jasotze aldera".*

Era berean, etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboaren eta prestazio osagarriaren araubide juridikoa definitzeko beharra nabarmendu du Arartekoak Eusko Legebiltzarrari zuzendutako urteko txostenetan<sup>5</sup>.

Aurretik azaldutako guztia gorabehera, Arartekoak kezka egiaztatu du eskubidearen arauzko garapena eta dagokion prestazio osagarria ez direla onetsi.

Zehazki, Arartekoak bere iritzia eman du araubide garapenik ez egoteari buruz eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak hainbat ebazpenetan<sup>6</sup> Etxebizitzarako prestazio ekonomikoaren kudeaketari buruzko Etxebizitza Sailburuordetzaren azaroaren 4ko 1/2016 Instrukzioa erabiltzeari buruz<sup>7</sup>.

Zoritarrez, gogoeta batik ere ez zuen onartu Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak.

<sup>4</sup> **Eusko Legebiltzarra.** 12/2017 Legez besteko Proposamena, Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren erregistroan onartzeko irizpideak aldatzeko neurriei buruzkoa. Jatorrizko ekimena: 11\11\02\01\00049.

<sup>5</sup> Ikusi: Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, [2016. urtekoa](#) (196.or), Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, [2017. urtekoa](#) (193.or), Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, [2018. urtekoa](#) (191.or.), Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, [2019. urtekoa](#) (195.or.), Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, [2020. urtekoa](#) (200.or.) eta Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, [2021. urtekoa](#), (179.or.).

<sup>6</sup> **Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Saila.** 1/2016 Instrukzioa, azaroaren 4koa, Etxebizitzako Sailburuordetzarena, etxebizitzarako prestazio ekonomikoaren kudeaketari buruzkoa. Eskuragarri hemen: [https://opendata.euskadi.eus/contenidos/tramita\\_circular/cios\\_pno\\_118291\\_16\\_04/es\\_def/adjuntos/2016%20instrucci%C3%B3n%20pev%20def%20eu.pdf](https://opendata.euskadi.eus/contenidos/tramita_circular/cios_pno_118291_16_04/es_def/adjuntos/2016%20instrucci%C3%B3n%20pev%20def%20eu.pdf)

<sup>7</sup> **Arartekoa.** Besteak beste: Arartekoaren 2021R-2222-20 Ebazpena, 2021eko ekainaren 14koa eta Arartekoaren 2021R-981-21 Ebazpena, 2021eko uztailaren 9koa. Interneten eskuragarri: [www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)





Hala ere, Arartekoak berriz ere azaldu zuen ahalik eta azkarren gauzatu behar dela etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubidearen eta EPEren erregelamenduzko garapena, hala, segurtasun juridikoa emateko ELk aitortu eta deklaraturako eskubide subjektiboari.

7. Aurretik azaldutakoarekin lotuta, Arartekoak jakin du orain dela gutxi Nazio Batuen errelatore bereziak txostena egin duela muturreko pobrezari eta giza eskubideei buruz<sup>8</sup>.

Lehenik eta behin errelatoreak azpimarratzen du gizarte babesaren giza eskubide bat dela eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunean aitortuta dagoela.

Halaber, berresten du gobernuari dagokiela herritarren estaldura eraginkorra bermatzea bizi ziklo osoan lagunduko dieten gizarte babeseko programen bitartez. Ondorioz, txostenak dio ez dela nahikoa gizarte babeseko gutxieneko mailak ezartzea baldin eta maila horiek eskuratzeko badira babestu beharreko norbanakoentzat zein taldeentzat.

Prestazioak xede den biztanleriarengana ez direnean iristen, gizarte babesak aldaketa lortzeko duen gaitasuna ahuldu egiten da, eta horrek esan nahi du efikazia, eraginkortasun eta ekitate gutxiago dagoela. Egiaz, txostenean adierazten da horrelakorik ez jasotzeak kalte handiak sortzen dizkietela norbanakoei, haien etxeei eta gizarteari orokorrean epe motz zein luzean.

Arartekoak egiaztatu du urte urte etxebizitza babesturako eskatzaileen kopurua handitu egiten dela. Halaber, geroz eta gehiago dira etxebizitzaren premia beharra eta merkatu librean etxebizitza bat eskuratzeko ezinezkotasuna dituztela jakinarazten duten kexagileak.

Horregatik guztiarengatik, Arartekoaren ustez beharrezkoa da etxebizitzako politika publikoak diseinatzean kontuan hartzea baita ere gizarte babeseko neurri efikazak, eraginkortasunez bermatzen dutenak etxebizitza duin eta egokia eskuratu eta disfrutatu ahal izatea.

8. Zehazki, Gizarte Eskubideen Europako Batzordeak (aurrerantzean, Batzordea) gogorarazi du Europako Gizarte Gutunean aitortutako eskubideak praktikoak eta efektiboak izan behar direla, eta ez soilik teorikoak. Beraz, jakin beharra dago 31. artikuluan jasotako etxebizitzarako eskubidearekin lotuta, Batzordeak berretsi duela beharrezkoa dela batasuneko estatuak arrazoizko epe batean eta ahalik eta baliabide gehienak erabiliz herritarrentzako eskuragarri jartzea bertan aurreikusitako

---

<sup>8</sup> **Nazio Batuen Erakundea. Batzar Nagusia.** Gizarte babesaren testuinguruan eskubiderik ez jasotzea. Olivier De Schutter errelatore bereziaren Muturreko pobrezari eta giza eskubideei buruzko txostena. Eskuragarri hemen: <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/G22/322/20/PDF/G2232220.pdf?OpenElement>



eskubideek ondorio guztiak izateko beharrezko baliabideak. Bereziki gizarte bazterketa eta pobrezia egoerak detektatzen diren inguruabarretan<sup>9</sup>.

9. Kasu honi dagokionez, kexagileak sei pertsonako bizikidetzatza unitatea osatzen du eta lau adingabe ditu bere ardurapean. Halaber, Arartekoak egiaztatu du eskaria egin zen uneko inskripzioaren antzinakotasunak ez zituela betetzen Etxebizitzarako Legearen laugarren xedapen iragankorrak eskatutako lau urteak.

Bitxia da beraz Bizkaiko Etxebizitzarako Lurralde Ordezkaritzak prestazioaren eskubide subjektiboa eta ordainketa aitortu izana, eskariaren izapidetzea hasi zenetik jakin bazekienean ez zituela betetzen aitortua izateko betekizunak.

Horrekin guztiarekin, kexagileak denbora guztian zehar egiaztatu du EPEa etxebizitza unitatearen ohiko bizilekuaren alokairua ordaintzeko erabili duela.

10. Puntu jakin horretan, eta jarduera garatzeko jarraitu behar dituzten esku-hartzeko printzipioen arabera, Arartekoak gogorarazi nahi dizu, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 4. artikulua arabera:

*"1. Administrazio publikoek, haien eskumenen barruan dihardutela, eskubide indibidualak edo kolektiboak gauzatzea murrizten duten neurriak ezartzen badituzte edo jarduera bat egiteko betekizunak eskatzen badituzte, proportzionaltasun-printzipioa aplikatu beharko dute eta murrizketa txikiena eragiten duen neurria aukeratu beharko dute, interes publikoa babesteko beharrezkoa dela arrazoitu eta lortu nahi diren helburuetarako egokia dela justifikatu, betiere diskriminazioa eragiten duten tratu-desberdintasunak baztertuz. Halaber, lortutako eragin eta emaitzak ebaluatu beharko dituzte aldizka.*

*2. Administrazio publikoek zainduko dute aplikatu beharreko legerian aurreikusitako betekizunak bete daitezela. Horretarako, zeinek bere eskumenen barruan eta datu pertsonalak babesteko legerian ezarritako mugekin, beharrezkoak diren egitateak, egintzak, elementuak, jarduerak, zenbatespenak eta gainerako inguruabarrak begiratu, egiaztatu, ikertu eta ikuskatu ahalko dituzte."*

Era berean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 110. artikulua honako hau ezartzen du Administrazioak berrikusteko dituen ahalmenei dagokienez:

- *"... berrikuspen-ahalmenak baliatzerik ez dago baldin eta, akzioak preskribatu direlako, denbora igaro delako bestelako gorabeherengatik,*

<sup>9</sup> **Gizarte Eskubideen Europako Batzordea.** *International Movement ATD Fourth World v. Frantzia.* Complaint no. 33/2006 erregistro zenbakia. Eskuragarri hemen: <https://hudoc.esc.coe.int/eng/?i=cc-33-2006-dmerits-en>



*ahalmen horiek baliatzea ekitatearen, fede onaren, partikularren eskubideen edo legeen aurkakoa bada.*

11. Adierazitakoaren harira, garrantzia berezia du Čakarević Kroaziaren aurka kasuak<sup>10</sup>. Zehazki, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (aurrerantzean, GEEA) kasu bat aztertu zuen, eta bertan Kroaziako Administrazioak langabezia-prestazioa ordaintzen jarraitu zuen, hasiera batean eman zitzaion legezko epeaz kanpo.

Hala ere, horrek, Kroaziako Administrazioak, akatsez jabetuta, behar ez bezala ordaindutako kopuruak itzultzea eskatzea ekarri zuen. Hain zuzen ere, Kroaziako Administrazioak adierazi zuen bidegabeko aberastea gertatu zela, langabezia-prestazioa akats batengatik ordaindu zuten gutxi gorabeherako hiru urteko luzapenaldian. Zehazki, erreklamaturiko aldia 1998ko ekainaren 10etik 2001eko martxoaren 27ra bitartekoa da.

Barneko auzitegien babes faltarekin ados ez zegoenez, kexagileak erreklamazio bat jarri zuen Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren aurrean, Hitzarmenaren 1. protokoloaren 1. artikuluan oinarrituz, Giza Eskubideak eta Funtsezko Askatasunak babestekoa dena. Zehazki, Kroaziako enplegu-zerbitzuaren jarduketak bere jabetzarako eta bere ondasunaz gozatzen jarraitzeko legezko itzaropenerako eskubidea urratzea ekarri zuen.

Testuinguru horretan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, bere erabakian zehar, ebaluatu du ea Kroaziako Administrazioak akats baten ondorioz ordaindutako diru itzultzeko zuten betebeharrak betetzen zituen 1. protokoloaren 1. artikuluan jasotako eskakizunak.

Modu horretan, Auzitegiak uste du kontuan hartuta prestazioen izaera bizirauteko egungo oinarrizko beharrezkoak diren laguntza izatea dela, egoerak zuzenbidea behar bezala ezarrita zegoela pentsaraztera (legitimoki) eraman ote zezakeenaren inguruko eztabaida auzi jartzaileak ordainketak jaso eta diru-sarrerak kontsumitzen zituen uneko egoera aintzat hartuz ebaluatu behar dela<sup>11</sup>.

Azken batean, Auzitegiak Kroaziako administrazioak xede legitimo bat jarraitzen ote zuen adierazi du eta ea xede hori proportzionatua zen.

Argitze aldera, nahitaez aipatu behar da GEEAk baieztatzen duela hasiera batean partikular batek eskubidea izan beharko lukeela administrazio erabaki irmo edo betearazle baten baliozkotasuna bere alde argudiatzeko, eta baita jadanik horren arabera hartu diren gauzatze neurriak ere, betiere onuradunak edo bere izenean aritu den inork erabaki hori gaizki hartzea edo zuzen ez aplikatzea ez badute ekarri. Beraz, administrazio erabaki bat etorkizunean ezeztatu daiteke (ex nunc), eta

<sup>10</sup> **Giza Eskubideen Europako Auzitegia.** 2018ko apirilaren 26ko epaia. Čakarević Kroaziaren aurka kasua. *Application no.* [48921/13](https://hudoc.echr.coe.int/eng/{%22appno%22:[%2248921/13%22]}). [https://hudoc.echr.coe.int/eng/{%22appno%22:\[%2248921/13%22\]}](https://hudoc.echr.coe.int/eng/{%22appno%22:[%2248921/13%22]})

<sup>11</sup> Čakarević Kroaziaren aurka... *op.cit.* 64. atala.



itxaropen bat ez da atzera begira zalantzan jarri behar (ex tunc) eta zilegi gisa aitortu behar da, salbuetsiz interes orokorraren edo hirugarren interesen alde kontrakoa justifikatzen duten arrazoi pisutsuak egotea.<sup>12</sup>

Azaldutakoa ikusirik, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak adierazi du zenbait inguruabar daudela auzi-jartzailearen itxaropena 1. protokoloaren 1. artikulua babesten duela onartzeko. Zehazki, honako hauek zerrendatzen ditu<sup>13</sup>:

- Lehenik eta behin, ez dago ez zantzurik ezta alegazio batik ere dioenik eskatzaileak aurkaratutako egoeran parte hartu duenik, hots, prestazioak ordaintzen jarraitu direla.
- Bigarrenik, ez da zalantzan jartzen eskatzailearen fede ona aurkaratutako langabezia prestazioak kobratzean.
- Legezko epea bukatu ondoren hiru urte baino gehiagoko aldi luzean agintaritzek ez zuten ezer egin hilabeteko ordainketak gauzaten ari ziren bitartean.

Azken finean, Auzitegiaren ustez inguruabar horiek eta administrazioak egindako akatsak auzi jartzaileari pentsaraz diezaiekete ordainketa horiek jasotzeko eskubidea zuela.

Laburbilduz, GEEAk auzi-jartzaileari eskaturiko babesa emanaz amaitu du bere esku-hartzea, egiaztatu baitu bidegabe jasotako zenbatekoen sorreran erantzukizuna izan zuen bakarria administrazio agintaritzak izan zela, beren-beregi.

Izan ere, GEEAk baieztatzen du gobernamentu onaren printzipioak bereziki garrantzia izan behar duela. Horri dagokionez auzitegiak uste du agintaritzek ez zutelara bete denboraz eta modu egokian eta koherentean jarduteko duten betebeharra. Are gehiago, ez zen estatuaren erantzukizunik ezarri egoera hori sortzeari zegokionez, eta estatuak bere akats propioaren ondorio guztiak ekidin zituen. Zerbaitegatik zegoen karga guztia bakar-bakarrik eskatzailearengan.

Gainera, auzi jartzailearen egoera pertsonalari dagokionez, GEEAk adierazten du langabezia prestazioen kontzeptuan jaso zuen zenbatekoa oso txikia zela, eta horrela, bizirauteko oinarritzko gastuak ordaintzeko erabili zela<sup>14</sup>.

Orain arte azaldutakoa nahikoa ez balitz, GEEAk bere iritzia berretsi du hainbatetan.<sup>15</sup>

<sup>12</sup> Čakarević Kroaziaren aurka... *op.cit.* 56. atala.

<sup>13</sup> Čakarević Kroaziaren aurka... *op.cit.* 59tik 63ra bitarteko atalak.

<sup>14</sup> Čakarević Kroaziaren aurka... *op.cit.* 84., 86., eta 88. atalak.

<sup>15</sup> **Giza Eskubideen Europako Auzitegia.** Besteak beste: 2009ko irailaren 15eko epaia, Moskal Poloniaren aurka kasua, [Application no. 10373/05](#). 2012ko urriaren 2ko epaia, Antoni Lewandowski Poloniaren aurka kasua, [38459/03](#) eta 2021eko otsailaren 11ko epaia, Casarín Italiaren aurka kasua, [4893/13](#).



12. Arartekoak gogorarazi du azaldutako guztiak botere publikoak behartzen dituela ordenamendu juridikoa osatzen duten nazioarteko itun eta akordioen arabera (Konstituzioaren 96. artikulua), eta Konstituzioan onartutako oinarritzko eskubideen interpretazioaren berri ematen duela (10.2 artikulua).

Hain zuzen, jurisprudentziako jarrera hori Bartzelonako Lan arloko 26. auzitegiaren 2018ko uztailaren 5eko epaian jaso da dagoeneko<sup>16</sup>.

Zehazki, auzitegiak GEEAk defenditutako tesia babesten du eta berariaz partekatzen du hauxe:

- *"...los errores imputables exclusivamente a las Autoridades estatales no deberían subsanarse a expensas únicamente del interesado (...) Y que debe tenerse presente, especialmente, si la Administración ha cumplido con un esencial principio de buena gobernanza, llegando a la conclusión de que (...) la Administración no cumplió su deber de actuar a tiempo y de manera apropiada y coherente, no considerando proporcionado que se reclame a (...) la totalidad de las prestaciones indebidamente percibidas (...), sin establecer responsabilidad alguna de la Administración."*

13. Erreklamazio honetan Arartekoak egiztatu du babes publikoko etxebizitzaren eskariaren inskripzioaren antzinakotasunari buruz zalantzan jarritako datua une oro egon zela Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzarentzat eskuragarri.

Azaldutakoa gorabehera, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde ordezkariak 2019ko uztailaren 18an aitortu egin zituen etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa eta EPE.

Horrekin lotuta, kexagileak etxebizitzaren gastuak egiaztatu zituen alokairuko ordainketa ziurtagiriak entregatuz, eta Lurralde Ordezkaritzak ez zuen akatsik detektatu ordainketa horietan. Ez da albo batera utzi behar, gainera, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak urtean behin eskatzen duela betekizunak betetzen direla egiaztatzeko ekainaren 25aren eta uztailaren 5aren artean.

Hala ere, bi urte geroago, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde ordezkariak eskubide subjektiboa iraungitzea erabaki zuen 2021eko uztailaren 19ko ebazpenaren bidez, eta 6.000 € itzultzeko erreklamatu zuen. Izan ere, kexagilea eta bere bizikidetzaren unitatea eskaria formalizatu zenean *"ez zeuden erregistro ofizialean inskribatuta alokairuko eskatzaile gisa lau urteko edo gehiagoko antzinatasunarekin"*.

Azken finean, Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak ez zuenez denbora horretan zehar erabakirik eman, horrek, zilegizko konfiantza sortzea ekarri du eta

<sup>16</sup> **Bartzelonako Lan Arloko 26. auzitegia.** 2018ko uztailaren 5eko epaia. Roj: SJSO 3749/2018; [ECLI:ES:JSO:2018:3749](#).



pentzaraztea eskubidea behar bezala aitortuta eta EPEa behar bezala ordainduta zeudela.

Aurreko guztiarengatik, eta GEEAren jurisprudenzian azaldutakoaren ondorioetarako, juridikoki ez da onargarria zilegizko itxaropen horretan Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak oker jasotako prestazio ekonomikoengatik egindako erreklamazioak sortutako interferentzia.

Beraz, Arartekoaren ustez, ez da onargarria Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak betekizunak betetzearen egiaztapenean izandako diligentsia faltak aitortu eta bi urte igaro ondoren kexagileak jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra sortzea.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak gomendio hau egiten du, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

#### GOMENDIOA

Azaldutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak berrikus dezala 2021eko uztailaren 21eko erabakia. Horren bidez, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde ordezkariek kexagilearen eta bere bizikidetzaren unitatearen eskubide subjektiboa azkentzea erabaki eta 6.000 euroko zenbatekoa itzultzeko betebeharra deklaratu zuen.

Edonola ere, Arartekoak azpimarratu duenaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak arretaz jokatu behar du eskubide subjektiboak aitortzeko prozedurak izapidetzen dituenean, erreklamazio honetan azaldutakoaren antzeko egoerak ekiditeko.

Nolanahi ere, Arartekoak berretsi egiten du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak lehenbailehen onartu behar duela etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa eta EPEa erregelamendu bidez garatzea.

